

Mikel Urreta Etxebeste: *Leize-zuloak* (1918)

Jacinto Iturbe

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
644 p.k. E-48080
BILBO
jacinto.iturbe@ehu.es

Laburpena: 1918ko apirilaren 7an eman zuen hitzaldi honetan, egileak historiaurrearen aurkezpena egiten du, hainbat irudiren laguntzarekin eta garai hartan ezagunak ziren datuetan eta autoritateetan oinarrituta. Hitzaldiaren bigarren atal batean, Euskal Herrian, eta bereziki Gipuzkoan egiten ziren azterketak eta indusketak era atsegin batean azaltzen dira.

Abstract: In this talk –given in Donostia on April 7th, 1918– the author gives a general presentation of man’s prehistory, with the help of several pictures, based on known data and well-known authorities. On a second part, the author gives an overview of the research and excavations that were taking place at the Basque Country at that time, and everything was presented in an easy and pleasant way.

1. SARRERA

Euskal Eснаlea elkarteak, bere helburuekin bat[1], 1918tik aurrera hainbat hitzaldi-ziklo antolatu eta haietariko batzuk argitaratu zituen [2-7]. Horietako lehena M. Urretak[8] eman zuen, eta hori da hona dakarguna.

2. MIKEL URRETA ETXEBESTE

Hitzaldiaren egile gisan Ureta’tař M. agertzen da, eta egilearen zehaztapenen bila joanez, ikusiko da M. Urreta izeneko bi idazle daudela gure literaturan [9]: Manuel Urreta Amiano (1888-1957), Gurasobide ezizenez idazten zuena, eta Mikel Urreta Etxebeste, hitzaldi honen egilea. Agian komeni da aipatzea ezen bai bata eta bai bestea ezagunak izan zirela xx. mendearen hasieran, eta horrela agertzen direla Pablo Zamarriparen berrogei idazlez osatutako Parnasoan [10].

Mikel Urreta Etxebesteren biografia ezin da laburra izan. Arlo pribatua alboan utzita, azpimarragarriak dira hiru alde: profesionala, politikoa eta euskaltzalea. Urnietan jaio zen [11], 1881-07-19an. Ingeniaritza ikasketak egin zituelarik, titulua 1903an lortu zuen. Maria Zulaikarekin ezkondu zen —Aita Donostiaren arreba berau—, eta hiru alaba eta seme bat izan zituzten. Lasarte-Orian teila-lantegi bat zabaldu, eta bertan aritu zen 1936ra arte; orduan, familiarekin erbesteratu egin behar izan zuen, urte luzetan Eusko Alderdi Jeltzalearen militantea izan baitzen. Gerra ostean Donostiara itzuli ahal izan zuen, urte bat Alacanten eman ondoren. Donostian bertan hil zen 1961-11-29an.

Alde politikoan, bizitza oparoa izan zuen: Donostiako udalean zinegotzi (1913), eta Gipuzkoako Probintziako diputatu (1915), eta Diputazioaren ordezkaria Donostiako Udal Museoa [11e]. 1934an, Pasaiako Portuko Lan-Juntako kide moduan agertzen da. Bere alde politikoan beti agertu zen euskararen alde, Donostian zinegotzi zen artean eta beste zinegotzi Jeltzale zen Abelin Barriolaren eraginez, Euskal Izkerak eta Iztunde Ikastola sortu zuen, gero Toribio Altzagak zuzendu zuen ikastola hura hain zuzen; aipatzekoa da era berean nola parte hartu zuen 1918ko Oñatiko kongresuan, Gipuzkoako Diputazioaren ordezkariaren barruan. Azpimarratzekoak dira, halaber, Urretaren parte hartzeak Eskualzaleen Biltzarrean [12], Ezpeletan, eta Eusko Ikaskuntzaren V. Bileran [13], Bergaran.

Bere lan profesionalaz eta politikoaz gain, Mikel Urreta hizlari gisan ezaguna izan zen, Gipuzkoa aldean batez ere. Hainbat hitzaldi eman zituen euskaraz, euskalgintza edo nekazaritza bezalako gaiak hizpide hartuta; hitzaldietan, irudiak eta argazkiak proiektatzen zituen beti. Hona dakargunaz gain, Euskal Esnaleak beste hitzaldi bat argitaratu zuen 1930ean [14], beste leku batzuen artean, Arrasaten 1927an emandakoa [15].

3. HITZALDI HONEN GAINEKOAK

Hitzaldia 1918ko apirilaren 7an, igandez, goizeko 11etan, eta jende askoren aurrean, eman zuen Mikel Urretak, Donostian, Novedades aretoan, eta oihartzun handia izan zuen. Aipatzekoa da nola Kirikiñok goratzen duen apirilaren 9an argitaratutako bere artikulua batean [16].

Hitzaldia ondo dago egituratuta: dibulgaziokoa izanik, maila ez da go-rena, baina bai denboran eta tokian egokia, eta bertan gaiaren zailtasuna gainditzeko hainbat baliabide erretoriko erabiltzen ditu... agian gaurko egunean politikoki artezak ez lirakeenak.

Edizio honetarako hitzaldia eskaneatu eta hona ekarri da. Letra mota aldatu den arren, testua ez da aldatu: zegoen moduan utzi da. Irudiak ere jatorrizkoan daudenak dira. Euskararen aldetik ez du apartezko zailtasunik; soilik berbaren bat ez da ohikoa izango gaurko irakurlearentzat. Horregatik, hasieran hiztegitxo bat paratu dut.



Mikel Urreta Etxebeste

(Iturria: http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/41%20URRETA.pdf)

ESKERRAK

Egileak eskerrak eman nahi dizkio Estibaliz Apellaniz Andreari eta Kepa Altonaga Jaunari egindako oharrengatik.

ERREFERENTZIAK

- [1] Euskal Esnalea elkartearen sorkuntzaren gainean, ikus, esaterako, RIEV, 1, 213-214; 324-325 (1907).
- [2] EUSKAL ESNALEA (1920): *Itzaldiak*. Martin, Mena y Cia, Donostia, 196 or.
- [3] EUSKAL ESNALEA (1923): *Itzaldiak. Bigarren salla*. Martin eta Mena, Donostia, 184 or.
- [4] EUSKAL ESNALEA (1924): *Itzaldiak. Irugarren salla*. Martin eta Mena, Donostia, 142 or.
- [5] EUSKAL ESNALEA (1926): *Itzaldiak. Laugarren salla*. Martin eta Mena, Donostia, 167 or.
- [6] EUSKAL ESNALEA (1928): *Itzaldiak. Boskarren salla*. Martin eta Mena, Donostia, 162 or.
- [7] EUSKAL ESNALEA (1930): *Itzaldiak. Seigarren salla*. Martin eta Mena, Donostia, 168 or.

- [8] URRETA, M., (1920): *Leize-zuloak*. 1-33. In [2]: *Itzaldiak*. Martin, Mena y Cia, Donostia.
- [9] Ikusi, esaterako, ONAINDIA, S., (1975): *Euskal Literatura. IV*, Etor, Bilbao. Ikus, halaber. <http://etorkultura.com/database/txt/EuskalL04.pdf>
- [10] ZAMARRIPA, Pablo (1930): *Kili-kili*, Gaubeka, Bermeo, 20. or. Ikus, halaber, <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZamarripaKili.htm>
- [11] Mikel Urretaren bizitzaren gaineko datu pertsonalak hainbat tokitan topa daitezke:
- [11a] AZURMENDI, Nerea (2005): *Maritxu Urreta*. Bidegileak bilduma, 41-4. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 24 or. Ikus, halaber: http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/171_urreta.pdf
- [11b] ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia (1999), *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Cuerpo A, vol. XLIX, 481-482. Auñamendi, Donostia.
- [11c] ONAINDIA, S., (1975): *Euskal Literatura. IV*, 180-181, Etor, Bilbao.
- [11d] <http://www.bagera.net/Bageranet/Ziberteka/Donostiarrak/S-Z/Urreta>
- [11e] http://museosantelmo.com/archivo_digital/libros_actas_st/1916-1918/word/1916-10-17.doc eta halaber http://209.85.129.132/search?q=cache:F4XXnIle4pEJ:museosantelmo.es/archivo_digital/libros_actas_st/1916-1918/word/1917-12-29.doc
- [12] ESKUALDUNA (1930), 1602, 2. or. Urriaren 3a.
- [13] EUSKO IKASKUNTZA (1934): *Quinto Congreso de Estudios Vascos. Vergara, 1930*. Sociedad de Estudios Vascos (Donostia). Ikus, halaber: <https://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/congresosestudiosvascos/publicacion.php?o=1538>
- [14] Izenik gabe: *Ollo ta ollotegiak*. 1-44. In EUSKAL ESNALEA (1930): *Itzaldiak. Seigarren salla*. Martin eta Mena, Donostia. Egilearen izena, Jon Bilbaoren Eusko Bibliographiatik hartuta.
- [15] <http://www.euskomedia.org/KulturaImgs/000324.jpg>
- [16] KIRIKIÑO, (1918): *Aurrerantz euskerea*. In EUZKADI, Jorrailarren 9a, astartia, 1. or. Halaber in (1984), «Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde», 188-189. or. Labayru, Bilbo. Ikus, halaber: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KirikinoEdoGeuk.htm>

HIZTEGIA

Edesti-aurrea:	Prehistoria (historiaaurrea)
Jorrailla:	Apirila
Bazkuna:	Elkartea, sozietatea
Azketsi (=asketsi):	Barkatu, absolbitu
Ludielestia (lutelestia):	Geologia (geografia)
Gizon-elestia:	Antropologia
Ludia:	Mundua, lurra
Zatia:	Era
Arqueena:	Arkearra
Lenengoa:	Primarioa
Bigarrena:	Sekundarioa
Iugarrena:	Tertziarioa
Laugarrena:	Kuaternarioa
Aldia:	Aroa
Burni-oria (burdinoria):	Brontzea
Burnia:	Burdina
Lucreci:	Lukrezio
Izkillua (=iskilua):	Arma
Ludi-edesti-zati:	Era geologikoa
Aztarrena:	Aztarna
Otz-bustikoa:	Hezea eta hotza
Otz-legorrekoa:	Lehorra eta hotza
Europa-ludiyen:	Europoako lurretan
Berdingea:	Desberdina
Antxen:	Hantxe
Gizaldia (=gizaldea):	Giza-taldea
Chelleen-malla:	Chelleeniarra
Moustier-malla:	Mousteriarra
Solutrensia-malla:	Solutrentsiarra
Aurignaciensia:	Aurignaciarra
Magdalen-malla:	Magdaleniarra

Ludi-bizilarik:	Lurreko biztanleak
Artezi:	Tresna, instrumentua
Zegizkien(=zegizkiten):	Egiten zituzten
Ziñeskintzak:	Sineskerak
Achulensia:	Acheulientsea
Gentza:	Bakea
Marratzatuba:	Marratua, marrak eginda
Darda:	Gezia
Azari:	Azeri
Dakusgu:	Ikusten dugu
Odo:	Edo
Ereslariak:	Kantariak
Ereskin:	Musika-tresna
Osalaria:	Medikua
Bat-ez-ere:	Batez ere
Aitz-urnegarra:	Estalaktita
Egikera:	Formazioa
Anei urte lenagoz:	Milaka urte lehenago
Etzinda:	Etzanda
Eskier:	Seguru
Erdi zeatuk:	Erdi Xehatuta
Holocen:	Holozenoa
Gizakundia:	Gizakiak
Itxaso-edesti erakustokia:	Itsas Historiako Museoa
Biderakuslea:	Gidaria
Ikuskak:	Esplorazioak
Idantzeki:	Grabatua
Azterkatu:	Aztertu
Emen:	Omen
Gorpezur:	Gorpu-Hezur
Edestu:	Kontatu
Idazkun:	Letrerua, Inskripzioa
Gayo:	Gaixo

URĒTA'TAR M.

EDESTI-AURĒA

LEIZE-ZULOAK

1918'G. URTEKO JOAILA'REN

7'AN IRAKURITAKO ITZALDIA



URETA' TAR' M.
EDESTI-AUREA
LEIZE-ZULOAK
1918'G. URTEKO JO'RAIL'A'REN
7'AN IRAKU'RITAKO ITZALDIA

ANDRE TA JAUNAK:

Euskal-Esnalea'k gertu zituen iru itzaldietatik bigarreanean guaz, eta bazkun ortan buru dauden jaunak, nere aultasun eta nere ez-ja-kitea oroitu gabe, lan zail eta astun au eman didate.

—¿Nola egingo dezu olako lan gaitza?— esaten zidan nere goga-menak.

—Nai-ta, lanak gauza asko egiten ditu— erantzuten ziyon nere biotzak.

*Euskal-Esnalea*ko jaunak: zuren aginduba betetzera nator. ¿Nola beteko det? ¿Ondo ala gaizki?

Itzaldi urri au bukatzen danian esango dezute. Bitartean, eta asiera ona izateko, azketsi zaidazute, andre ta jaunak, nere ausar-tasuna, ta itzaldi onen utsak ezkutatu.

Nere lan argal onek bi zati ditu.

Lenengoan, eta axal xamarretik, ludiedestia ta Sartalde-Euro-pa'n bizitu ziran lenengo gizon-edestia ikusiko degu; ta bigarren za-tiyan, gure erriko Edesti-aurrea.

Itzaldi atseginkor bat egin nai nuke ta itz berri ta zail gutxi erabilliko ditut; alaz ere, bat edo beste agertzen bada, ez asarratu, arpegi onez artu.

Ludi ta Europa'n

Edesti-aurreko gizonak etzekiten idazten, eta beren oiturak, si-nispenak eta abar, gure ezagutzarako illun daude.

Gizon ayek etzuten idatzi, egia da, baña bere bizilekuetan utzi zituzten aztarna guziak ondo aztertzen baditugu, asko ikasiko degu.

Aztarna oyetatik eta ludiyaeren izakeratik batez ere irakaspen bat sortzen da. Au da: Ludi-edestiak bost zati dituala:


Arqueena, lenengoa, bigarrena, irugarrena ta laugarrena.

Oyetao bakoitza beste puska askotan zatitzen da, baña gure gaurko lana erakusteko, aski degu laugarren zatiya ezagutzea.

Laugarren zati onek beste bi zati ditu: *Pleistocena* edo lenagokoa, beste izenez arri-landukoa, ta *Holocena* edo oraingoa.

Onek iru aldi ditu: arri legunduaren aldiya, burni-ori aldiya, ta burni aldiya.

Ona argi ta errez ikusteko eraz, izen oyek:



Bazekiten olako zerbait antxiñako gizonak. Ara Lucreci, Erromatarren olerkari bikañenak, zer idatzi zuen bere *De natura rerum* olerki ospetsuan.

*Arma antiqua manus, ungues, dentesque fuerunt,
Et lapides, et item sylvarum fragmina rami;
Et flamma atque ignes postquam sunt cognita primum,
Posterius ferri vis est, aerisque reperta,
Et prior aeris erat, quam ferri, cognitus usus.*

Euskeraz:

Antziñakoen artean, esku, azkazal ta ortzak,
Bai arri ta arbastak, ziran guda izkillu aurrenak;
Geroztikan, lenbizi sortzen dira su ta garrak,
Ondoren burnizko ta burni-orizko izkillu indartsuak,
Burnizkoak baño len agertzen dira burni-orizkoak.


Jakintsuak jakinai aundi bat dute gai ontan: gizona ze ludi-edestizatitan agertuba dan jakitea, ala irugarrengoan ala laugarrengoan.

Ogeitamar urte jarduka ontan igaro dira, ta orain ogeitamar urte jakintzak esaten zuena, ori bera gaur ere esaten du; gizona ez dala irugarrengo zatikoa, laugarrengo baizik.

Askok ez dute aitortu nai, baña gizonaren lenengo aztarrenak garbi erakusten dute gizona zein ludi-edesti-zatikoa dan.


Zati ontakoak dira ere ugolde aundiyak, eta pizti ta abere ugaztunen izatasuna.

Aldi ayetan ugaztun asko zan. Batzuek leku beroko pizti ta abereak: *Elephas antiquus*, *Rinoceros merki*, ta beste asko. Otz-bustiakoak ere bai: *Ursus spelaeus*, *Cervus megaceros* eta abar. Baita ere otz-legorrekoak: *Cervus tarandus* (*Reno*) elur-erbiya, orkatz eta beste olako asko.



Cervus megaceros

Pizti ta abere nastutze onek ¿zer esaten digu? Europa-ludiyari iru eguraldi berdingeak izan zirala: eguraldi beroak, asieran, otz-bustiak gero, ta otz-legorrek azkenez. Ta gizona eguraldi oyetara egokituko da, ta asieran belardi ugaritan egingo ditu bere txabolak, baña otzak aunditzen diranean leize-zuloetan sartuko da, ta aize zabalean, oyal urdiñetan —esaten dan bezela— arkitzen ez duen berotasuna, antxen arkituko du.



Cervus tarandus

Len esan degun bezela, lenengo gizaldi-bizilekuetan aztarren asko agertzen dira, ta bizileku ospetsu batzuen izenaz izendatzen dira gizaldi oyen egunak.

Izen oyekin biar ez degun nasteka egin gabe, iruditu zazute mendi bat; gizonaren aztarnaz beteta dago, ta lau aldiz egiña da, aldi batetik bestera urte asko igaro dirala. Iruditu zazute gañera, une edo tarte oyetan, mendi ori gizonaren bizilekua izan dala.

Mendi onek lau aldi, lau malla ditu.

1'goa	Chelleen-malla	
2'g	Moustier-malla	
3'g.	Solutrensia-malla	} Aurignaciensia } Solutrensia
4'g.	Magdalen-malla	

Gizaldi batzuek bizitu dira lenengo mallan; oyek dira lenengo ludi-bizilarik. Malla oni Cheleen izena jarriko diogu, Frantzian dan Chellez luberaren izenaz izendatuaz. Ikusi ditzagun malla onetan bizitu ziran gizaldiyeen aztarrenak.

Ez dakigu nolakoa zan malla onetako gizona; gure ustez, bere arteziak errezak ziran, geyenak zurezkoak, baña zura usteldu, apurtu

da ta malla onetan ez degu arkituko, ez da beste malletan ere, zurezko artezik.

Arriya landutzen bakar-bakarrik zekiten, eta landutze au zarpailla, traketsa zan.

Aizkorak sukarriz zegizkien, eta garbi esaten du itz orrek nolaz egiten ziran antziñeko aizkorak: aitzez; ara emen danak dakizuten bezela, ara emen euzkeraren zartasunaren agiri bat.

Aizkora oyek neurri askotakoak ziran; batzuek 12 zentimetrokoak, 28'koak beste batzuek.

Eguraldi bero-bustiak ziran, eta orrengatik malla ontan agertzen dira *Rhinoceros Merki* ta *Elephas antiquus'* en aztarnak. Gizaldi ayek, dakigun bezela, etziran leiza-zuloetan bizitzen, zelai ta belardi ugaritan baizik.

Ibai aundien ur bazterretan, erramu ostotsuen itzalpian, igarotzen zituzten bere egun zoriontsuk. Ez dakigu nola ziran gizon ayen oiturak, bere ziñeskintzak, bere illobiak, eta abar. Ez dakigu ere nolakoak ziran bere tresnak, bere trebetasunak. Ta ez-jakite au esan liteke betikoa izango dala.

Lenengo malla utzirik, ikusi zagun bigarrena. Moustier'ko leize-zuloak emango diyo bere izena, ta ala, malla au Moustier'ena deituko da.

Jakintsuak malla bi oyen tartean beste bat jartzen dute,



Cheleen-mallako arri landuak

Achulensia deritzaiona, baña ez degu berazaz itzegingo.

Bigarren mallan bizitu ziran gizaldiak, eguraldi otz-bustiak izan zituzten, eta leiza-zuloak beren bizilekuz. Eta aurrerontz ori bera egingo dute beste gizaldi askok. Eta gizaldi oyen aztarnaz, bere tresnaz ta bere jan-ondarrak beteta daude leize oyek. Malla ontako pizti ta abereak, artz basatia, leoia ta beste olako batzuek dira.

Leize-zuloak, gizonaren bizilekuak izan baño len, pizti ta abere oyen gordelekuak ziran; orrengatik beren ezurak eta beren eizaren ezurak asko dira, ta ardura aundiya euki bear da pizti, abere ta gizonen aztarnak nastutzeaz.


iZenbat bider gizonak eta piztiyak burruka gogorraz beteko zituzten leiza-gentzak edo pakeak, utzirik askotan gizonak bere bizitza pizti goseti baten atzaparretan!

Leize-sarbidetan billatzen dira sukalde-aztarnak, su-aztarnak. iZenbat bider gorputza berotzeko egiña izango zan su ura, ta zenbat bider gau illunetan piztik izututzeko! Gizonen lan bakarra eiza zan,



Barruko muña jateko erdibitutako ezurak

eta bere bizilekuetara etzekarten eiza osua, puskak baizik. Garun eta ezurren muñak gogoz jaten zituzten. Olaz arkitzen dira ezur asko ta asko barruko muña jateko erdibitubak.



Moustier-mallako sukarrri-azkonak

Malla onetako tresnak eta izkilluak mutur zorrotz eta arraskatzeko sukarritzak dira, ta lenago sukarriz aizkorak egiten ziran bezela azkonak egiten dira orain. Ezur bat edo beste marratzatuba agertu da, baña ezin esan leike ezur landutuba dala.

Solutrensia deritzayona da irugarren malla. Jakintsuak beste bi puska egiten dute malla au: puska bat *aurignaciensia* deritzen zaiona, ta bestia *solutrensia*.

Baña guk, bigarren izen onezaz besartzen ditugu biyak.

Malla ontan otsua, artza, zaldiya, *cervus tarandus* (reno erderaz) ta beste pizti ta abere asko bizitu ziran, baña ugariena zaldiya zan. Reno edo oreinaren ezurraz egiten zituzten eztenak, lepo-apaingayak eta beste artezi asko; sukarrizko aizkorak, azkonak, dardak eta abar ere bai, oso ondo landuak.

Laugarren eta azkeneko mallara eldu gera.

Prantziko *Magdalena* deritzan leize-zulo batetik artu du bere izena; alaz malla oni *Magdalenena* deitzen diogu.

Sarkalde-Europa'n bizi ziran gizonak egunetik egunera eguraldi otzaguak zituzten, eta len baño biarrago zuten leiza-zuloak bizilekutzat artzea.

Orduko abere ta piztiak, reno, orein, azari, artz ta beste batzuek ziran. Renua zan ugariena. Mallatik-mallara gizonaren arteziak egokiagoak dirala dakusgu, ta gezur aundirik gabe esan liteke laugarren mallako gizaldiak edertzaleak dirala.

Ezurraz artezi asko zegizkiten: korain odo arpoi bizardunak, jostorratzak, aizkorak ta abar. Jostorratzak arri egokiaz zorrozten zituzten, eta zuluua egiteko guk baño artezi geyago zuten. Orduko jantziak, orduko soñekoak, orain bezelako nastuak etziran, ezta ere ain nabarmenak; pizti-larru batzuk, eta aski zan. Bazituzten jostorratzak. ¿Eta ariya? ¿Zer ariz jardutzen zuten orduko jostunak? Uste degunez, aberearen zañak ziran jostun ayen ariyak.

Lengo gizonak aña etziran malla ontakoak sukarri landutzen, baño bai ezurra landutzen; ortan oso trebiak ziran.

Jakintsu bat edo besteren iritziz, malla ontako gizonak ereslariak ere ba ziran, eta bere ereskin oituenta txistuba zan, aize-txulo askodun txistua.

Aurrekoak bezela ezur-muñ-zaliak ziran gizon ayek, baño muña etzuten jateko bakarrik, margoak (koloreak) egiteko ere bai; margo oyetzaz leize-zuluetako arkaitzak margotzen zituzten, eta, uste denez, bere gorputzak ere bai. Laister ikusiko dezute margolari ayen azkartasuna.

Artzen zituzten, margoak egiteko, lurbeltz eta gorriak, eta arri zabal baten gañean nastutzen zituzten auts ta muñak, eta margoa eginda zegoanean, pizti-egur ustuetan sartzen zuten. Berdin-berdin, orain saltzen diran lez.

Orduko emakumeak oraingoan antzekoak omen ziran: arro xamarak, apaintzaliak; beren senarrak oraingoan berdiñak: atseginzaleak, ontzaleak, eta orain gertatzen dan ber-bera gertatuko zan orduan ere: emaztea bere burua apaintzeko pitxi batez zaletzen zanian, bere senarrari eskatuko zion, ta gizajo au leize-zuloko pakezalia ba-zan, pitxi baten asmatzalle arkitu bearrian izan zan, eta lepoko uztai, ortzaz eta txirlaz egin zuen. Ara emen emakume-lepoe-tan ikusten ditugun uztai garistien asiera.

Len esan degun lez, oso gizon trebeak ziran orduko gizonak ezur landutzen, eta oreinaren ezurraz irudi ederrak egiten zituzten; zaldi ta emakume irudiak.

Orduko emakumearen gizentasunak arritzen gaitu. ¿Badakizute zergatik ziran emakumeak gizenak? Etxezaliak, leize-zulozaliak ondo esateko, ziralako, bere bizi guztia leize-zuloetan igarotzen zutelako; etzan, ba, orduan ez dendarik, ez antzokirik, ez ibilketarik; ema-


kumeak etxeko lanari gogor jarraitzen zion, eta, osalariak diyotenez, gizentzeko ez omen da etxian egotia baño gauza oberik .

Orduko irudi batzuen edertasuna ikusiaz arritzen gera, etzuten ba ikastetxerik; irakaslari bat bakarra zuten: gure Jaungoiko gauz guztien egillea. Ta alaz ere ézenbat dira gure tartean ayek aña egingo lutekenik? Oso gitxi.

Margolari azkarrak zirala, beste era batean ere erakutsi zuten. Milla ta zortzireun eta larogei'garren urtean, Santuola, Santander'-ko jaun bat, Santillana deritzayon erri aldamenian dagon leize-zulo baten sartu zan.

Ikusi zituan, egia da, orban beltz bat edo beste, baño etzitan aintzakotzat artu.

Igaro ziran urte batzuek, eta berriro sartu zan leize-zuloan, baño ez bakarrik, bere alabatxo batekin baizik. Sartu ziran leizan, eta neskatxuak, gorantz begira zegoala, garraxi bat egiñaz, bere aitari esan zion: «iAita: ara emen zezen baten irudia!» Jaso zuan aitak burua, ta arrituta gelditu zan ango irudi ederrak ikusiaz.



Altamira-leizean dagon irudi bat

Zezenen antzeko abereak (*bisonte* erderaz), orkatz, zaldi, basurde eta beste pisti ta abere askoren irudiak leiza-sapaian margoztuak zeuden.

Bera sartu baño len besteren bat sartuko zala uste izan zuan, eta irudi ayek berak egiñak izango zirala. Baña leiza aren sarbidea urte asko etzala agertu zan; gañera énola sartuko ziran gure gizaldi-gizonak orlako toki illunetan margoztutzero?; ta ezagutze ez dan abere baten irudia margotzea ez da errez.

Altamira-leiza irudiak zarata aundiya atera zuten jakintsu tartean. Harlé, leiza-zuloaz asko zekien jakintsua, eldu zan leizara, ikusi zituen irudiak eta gezurrezkoak zirala esanaz irten zan.

Harlé'ren esanaz jarduketa aundik egin ziran, eta jarduketa oyek etziran oraindik bukatuko, ez balira agerpen berriak Prantziko leize-zulo batzuetan agertu.

Bat-ez-ere Eyziez deritzayon leize-zuloko irudiak ikusgarriak ziran, eta irudi ayek aitz-urnegarrez estalita zeuden, eta Altamira'ko ta Eyziez'ko irudiak tankera batekoak ziran. Aitz-urnegarren egikera gogoratuaz, urte asko igaro biar dirala aitz-urnegar koskor bat egiteko oroituaz, garbi agertzen da Eyziez eta Altamira'ko abere-irudiak ez dirala orain urte gitxi egiñak, anei urte lenagoz baizik.

Harlé'k, Eyziez'ko irudiak ikusiaz Breuil jaunari idatzi zion, eta idazki artan bere okerra aitortzen zuen, Altamira'ko leizean arkitu ziran irudiak edesti-aurrekoak zirala esanaz.

Geroztik, leize-zulo askotan agertu dira tankera ortako irudiak, ta, gero ikusiko degun bezela, Bizkai'ko leize-zuloan ere bai.

iEta zer ederki dauden Altamira'ko irudiak beltzez, gorritz eta oriz!

Etzan ba lan atseginkorra izango, argia esku batean eta margozkia edo pintura bestean, lurrean gora begira etzinda zeudela margoztia.

Ez da gizon eta emakume irudirik agertzen. ¿Zergatik? Leize-zulo ontan, eta beste leize-zuloetan ere bai, irudiak toki ezkutuetan daude, ta irudi oyek ziñeskintza batez egiten zituztela uste da: totemismoa deritzayon sorginkeriz.

Gizon ayek uste zuten, abere edo pizti bat eizatu bear zutenean, margozten zuten bere irudia toki gorde batean, eta eizera eskier joaten ziran.

iEkarriko zuten bai eiza!

Entzuten zaudeten eiztariak: iziñeskintza onetzaz zein eiz ederrek egingo zenituzteken! ¿Ez alda ala? Basollua ekartzeko, gela illun batean bere irudia egin, artu suizkillu edo eskopeta, zakurra ta... ibapo motel! Andik laster basollo eder batekin etxeratu. Au egia balitz, ibai giñakela ondo! iEiza merkatuko litzake!

Altamira'ko irudi batzuek erdi zeatuk daude, ta grabatuak beste batzuek. Breuil apaiz ospetzuak idazti eder bat Carthailak jauna laguntzalle zubela egin zuen, eta idazti artatik artu ditut ikusi dituzuten Altamira'ko irudiak.

Iritxi gera Holocen edo oraingoa deritzayon zatira, ta gitxi esango degu zati onetzaz.

Gizona, oraindaño eiztari izan da, baña nekazari biurtuko da emendik aurrera; pizti ta abere asko menderatuko ditu, ta lur-lanetan gogoz asiko da. Ezagutuko ditu ogia ta laboreak, agertuko dira lurrezko ontzik, batzartuko dira gizonak, eta alkar bizirik, sortuko dira lenengo erriak, lenengo obiak, *jentil arri* deritzazkion obiak; arrizko aizkorak ondo landu ta legunduk agertuko dira. Illak obiratzeko, leize-zuloen lez mendi-zuloak egingo dira.

Ikusi ditugu, azal xamarretik, Europa-edesti aurrekoen izae-rak; beren oituraz dakigun zer edo zer ikusi degu. Gure erriyaren edesti-aurrea errezago ikusiko degu orain.

Gure erriyan


Barandiaran, apaiz gazte, irakasleri bikañak, bere itzaldi eder batean, gitxi gora-bera itz oyek esan ditu:

«Ez da arkitzen gure errian, guk dakigunez, ibai zabaletan, ur-ertzetan, eguraldi ederrak ziran bitartean bizitu ziran gizonen aztarrenik, ez da ere Saint-Acheul'en biztanlen aztarrenik, ez da eguraldi otzak bildurtu ta Monstier, Aurignak eta Solutre'ko leize-zuloetan sartu ziranenik ere. Ta aztarrenik ez agertze au, ez da orduko gizonak gure errian bizi etziralako, ez, gure lanak, gure tresnak, gure aztertutziak, txikiak, aulak izan diralako baizik ...

«Gure erritik igaro zirala lenengo gizakundiak ziñisteko gauza da.» Euskalerrian leize-zulo asko dago; ez ditugu bere izenak agertuko, lan luzia izango litzaketa. Gipuzkoan bertan ugarik dira leize-zuloak, baña gutxi itzaldi oni dagozkionak. ¿Nolaz da au? Leize-zulo asko dira, baña gutxitan aztertu dira barruko lur-azalak; gutxitan ikusi dira ormak eta orma oyetan antzineko margorik dagon ala ez.

Orain arte leize-zulotan sartu dan euskalduna aitz ur negar billa, edo *jentillen* urre billa sartu da. Eta sartu-atera oyetan izenbat lan txar, egin zayo jakintzari !

Gipuzkoa'n dauden leize-zulo ederrenak eta ospetzuena Landarbaso'n daude, *Aitzbitarte* deritzayetenak dira.



Holocen-mallako arrizko aizkoraz

Milla zortzireun larogeita amabigarren urtean Lertxundi jaunak egin zituan lenengo ikustaldiak, eta, esaten dutenez, lenengo gizonaren aztarren asko arkitu ziran.

Oyetako batzuek, Donosti'ko *Itxaso-elesti* erakustokian daude.

Bere lanetzaz idatzi zuena irakurri det, eta, berak dionez, ardurara aundiko aztarrenak ziran Aitz-bitarte'n arkitu ziranak. Baña asko galdu dira, ta atsekabe aundiya artu degu galtze onekin.


Amasei urte geroago Harlé jakintsuba, Soraluze jaun langillea biderakusle izanik, juan zan Landarbasora, eta, bere esanaz, egun artan arkitutako aztarrenak eta lenagoz arkitutakoak, *Ursus spelaeus*, *Canis*, *Hyaena spelaea* (katamotz), *Felix spelaea* (leiz-katuba), *Equus*, *Bison* eta beste pizti ta abere askoren ezurak dira.

Cervus tarandus, reno, deritzayon aberearen ezur bat edo beste ere arkitu zuen Harlé jaunak, eta egizkoa bada, agerpen aundiya da. Ala jakingo litzake abere au Bayonatik onuntz bizitu zan ala ez.

Lertxundi, Soraluze ta beste jaun batzuen ikuskak, Harle'n iritzira onak dira, baño biar bezelakuak, ez.

Lengo udaran Breuil apaiz jakintsubak Aitz-bitarteko leize-zuloak ikusiaz arri idantzezkoa arkitu zuan; arri ortan oreinaren buruba ta adarrak garbi agertzen dira

Apaiz onen esatez Aitz-bitarteko leize-zuloak ardurara aundikoak dira, ta iru leizak ondo azterkatzen ba'dira jakite asko agertuko da.



Aitz-bitarteko irugarren leiza



Landarbaso'n arkitutako ezurak

Leize-zulo oyetan laugarren mallako, *magdalenierleko* gizonak bizitu zirala gauza erabakiya da, baña Breuil jaunak esaten duenez, bigarren mallako azterren bat edo beste arkitu du, ta leiza oyetan malla guztietako aztarrenak arkitzea gauza erreza izango omen litzake.

Baña lan oyek ez dira edozeiñek egitekoak.

Nere ustez, Diputazioa ta Errenderi'ko Udala alkartuaz egin biar diran lanak dira: lenengoz sarbidea itxi, ta jakintsuai aztertutzea eman. Gure Euskalerritik atera gabe, ara or Arantzadi, Barandiaran ta Eguren jaunak.

Leize-zulo iste au ez da nik sortu dedan gauza; gai oyetan bestien aurretik dabilzan erriyak egiten dutena da, ta laster ikusiko dezute zer egin dun Bizkaiko Diputazioak Basondo'ko leize-zuloan.

Oñati'tik Arantzazura guazela, Aizkirri deritzayon leize-zuloa dago. Leize-zulo ontatik ezur asko atera emen dira, bat-ez-ere *Ursus spelaeus*'en ezurrak. Diotenez, Oñati'ko etxe batean pizti onen buru-ezur osoa dago.

Leize-zulo ontan, beste leize-zuloetan lez, kalte aundiya egin dute *jentil* urreak billatzera joan diranak. Egiteko on bat egin zuen sarbidea itxiaz leize-zulo onen jabiak. Onela ez da dana galdu, ta biar edo etzi, Diputazioa ikaste oyek laguntzen asten danian, edesti-aurreari dagozkion gai oyek argitzeko laguntasun aundia arkitu dezake.

Ernialde'n dago beste leize-zulo bat, eta onen sarbidea, Aizkirrin bezela, itxiya dago.

Breuil jaunak esaten duenez, leize-zulo au ikuste aundikoa da; bera izan zan egunean sukarrri-aizkora landutu ta leundu eder bat arkitu zuen, eta ezin ekarriz edesti-aurreko lur-ontzi bat bat utzi zuen.

Esan degun bezela, illobi ta gizonaren gorpezur asko arkitzen dira leiza-zuloetan, baña ardura andiya bear da ezur oyetzaz, ez dira ba beti edesti aurreko gizonenak,

Urrejola'ko Ozkatzategi deritzaion leize-zuloan arkitu ziran gizon-ezur batzuek, Mujika'tar Serapi Jaunak *Euzko-lutelestian* (1) esaten duenez. Idazti ortan bertan, beste orri batean, jaun orrek berak edestutzen duenez, Urrejola-Garay'ko mendatian Oñati ta Leniz'ko alderdik burruka gogorra izan zuten, ta Leniz'ko buru egiten zuen Lazarraga ta beste bere bi anayak il ziran. Mujika jaunak esaten du Ozkatzategi'ko ezurrak ez ote ziran ill oyen ezurrak. Izan leiken gauza da. Alaz, ba, leize-aztertutzia ez da aurjokoa.

(1) Geografía general del País Vasco-Navarro. Guipúzcoa.

Bizkaia'n, Guipuzkoa'n lez, leize-zulo asko dago, baña batetzaz itzegingo degu. Azkeneko udaran zarata aundiya sortu zan, Bizkai'ko leize-zulo bateko ormetan edesti- aurre-irudiak agertu ziralako. Leize-zulo ori Basondo'ko San Mames'en dago: bertakuak esaten dutenez Santimamias'en.

Leize-zulo au ikusteko oso zaleturik negon, eta agertu bat egitea erabaki nuen. Juan giñan bada nere lagun ona dan Agirre'tar Joseba ta ni Gernika'ra ta Gortezubi'tik Basondo'ko leize-zulora.

Sarbidea, burnizko ate batez itxia zegoen, eta ate gañean idazkun au irakurtzen zan:

«Bizkai'ko Diputaziñua da lexa onen jabia.»

Iriki zuen atia gurekin zi Joan Bizkai'ko Mikeleteak, (Diputaziyoko lendakariak gordetzen du giltza,) ta aurrerontz sartu giñan.

Toki estu asko dago, ta ez da orren errez igarotzen. Iritxi giñan gela zabal ta eder batera, ta andik laster, irudiak zeuden tokira.

iZe irudi ederrak! Atzo egiñak ziruditen. Agirrek, orain ikusiko dezuten *bisonted*ren irudia artu edo kalkatu zuen.

Eta nik sapaiaren argazkia atera nuen. Basondo'ko leizan badira gutxienaz ogeiren bat irudi, danak beltzez margoztuk. Oso begi onez ez genduen ikusi ikuslari batek bisonte-irudi, baten gañean idatzi zuena: «Klin-klon. Año 1917».




Basondo'n agertu dan bisonte-irudia

Alako gauzak egitera sartzen dira gizon argi batzuek leize-zulotara.

Amaitzera dijua nere itzaldia. Irudi asko ikusi ditugu, baña edesti-aurre gizonaren antzezkoa(erretratua) ez. iGauza erreza ba'litz!

Alaz ere, Zezentegi'ko (Ondarrabin) leize-zuloan, orain amalau urte bizitu zan gizonaren irudia, laster ikusiko dezute.

Mujika jaunak, len esan degun *Euzko-lutelestian*, edestutzen du gizon onen bizitza.



Basondo'n agertutako artz eta orein-irudiak

Asieran lanpernak eta karramarroak ziran bere jakiak, baña jaki aulak dira ta jan indartsuagoen billa asi zan.

Artalde bati begira zegon, eta ardiak gezala miaztuaz, leize-zulo ondora zetoze la ikusi zuan.

Eldu zion bati, ta il eta larrutu zuen aizto edo kutxillo txiki batez.

Su egiteko biderik etzuen; ez da gogorik ere: kearen bildur zan, eta gordiñik jaten zitun ardi puskak.

Jan-ondoren gayo egon zan, laguntzarik gabe, leize zuloko txoko illun batean. Bitartean sagu aundiak jan zizkioten ardi puskak.

Sendatu zan, eta aurrerontz, birikak lenengo janez eta beste puskak makil luzetan zintzilika gordeaz, iraun zuan zortzi illabete.

Ardi jakirik gabe gelditzen zanian, artzai zanean jaten zitun be-larrak janez irauten zuen.

Itxaso ertzean zegon, eta itxasoak, sagar garayan, sagar asko ekartzen zituan legorrera, baña sagarrik beraganatu baño len sagu aundi gosetiak jaten zizkiyoten danak.

Ikusirikan ardi galtzia, alkartu ziran artzayak eta lapurraren aztarrenik etzuten arkitu.

Bein artzai batek, ikusi zuen makilla, ta andik zintzilizka ardi puska.

Bildu ziran artzaiak eta karabineroak, eta leize-zulotik indarrez aterazi zuten gizajo goseti ura. iEtzuan bildur gutxi beste gizonen artean bere burua ikusi zuanean! Oraindik bizi da, ta eskian dabil Oyarzun'en.

Bukatu det nere itzaldia. Eskerrikasko gogo onez ta arretaz entzun dirazutelako.

Euskal-Esnalea' ko jaunak: Zuben aginduba bete det. ¿Nola? ¿Ondo ala gaizki? Ondo iruditu bazaizute, asko poztuko naiz.